A.T.V.-5402

I IRAŔKALDIJA



EUZKEL - ABESTIJAK.

II INGUŔAZTIJA.

EUZKELTZALE -BAZKUNA'K ARGITALDUBA.

BILBAO
1916

M.-13787
R-7009

ATUS. 402

# EUZKEL-ABESTIJAK

II INGUŔAZTIJA

EUZKELTZALE-BAZKUNÁ'K ARGITALDUBA

I IRAŔKALDIJA

BILBAO 1916

## BIL̄ABIDIA


Abeŕi mar̄iari ........................ 26
Goi-gorantz beti ........................ 27
¡Jantzara, mutillak! ........................ 28
Txori uŕetxindoŕa udan ........................ 29
Mendirik-mendi ........................ 30
Jagi, jagi, euzkotaŕak ........................ 31
Maŕkiñetxebaŕi'ko ........................ 32
Basatxoritxu ........................ 33
Belaŕimotza ¿zetara atoŕ ona? ........................ 34
¡Mendiyan bai-da edeŕ! ........................ 35
¡Oñazez! ........................ 36
Otseña zara ........................ 37
Itxaŕtu, euzko-semia ........................ 38
Egynto batez ........................ 39
Aŕats-abestija ........................ 40
Geŕtu gagoz ........................ 41
¡Lenago il! ........................ 42
Andra on daun gixona ........................ 43
Uŕundik ........................ 44
¡Azkatu bedi! ........................ 45
Euzkerearen eriyotza ........................ 46
¡Il̄una...! ........................ 47
Alostoŕia ........................ 48
Txeru ........................ 49
Len eta orain ........................ 50

# ABESTIJAK

# ABEṘI MAT̄IARI

(BIZKAI-ABESTIJA)



# ABEȐI MAȐIARI

(*Bizkayerazkua*)

Lora poliȓa ontzijan
begiratzen dodanian,
orduban zaukot, eȓe maȓia,
neure goguan.

Txori poliȓa kayolan
baȓuratzen dabenian,
¡ai! ordubantxe zaukat, maȓia,
neure goguan.

Mutikotxuba ikastolan
il-illik saȓtzen danian
zeure gomuta bixi-bixija
daukot goguan.

# GOI-GORANTZ BETI

(NABAŔA-ERESIJA)



# GOI-GORANTZ BETI

(*Bizkayerazkua*)

Gorago beti
zure gogo ori
jaso-ixu, euzkotaŕa, bai sendoki.

Abeŕijak dei-gaitu,
uŕgazi-eske dogu:
¿nok emongo eztautso,
iradu?

Goi-gorantz beti,
gogo zindo ori;
Abeŕi ama biaŕ dogu eutsi!

# JANTZARA, MUTIL̄AK

(LABURDI-ERESIJA)



# ¡JANTZARA MUTIL̄AK!

(*Bizkayerazkua*)

Aurten iñungo jairik
baseŕi polit onetan.
Amaika jantza biogu egin
arnasarik aŕtuteka.
Geure bijotza alat̄uta,
poz-pozik egind̄a ¡ujuju!,
¡jantzara, mutillak, erdu!

Euzkadi-ekandubak
mat̄e-mat̄erik bai-doguz.
Eztogu gura jantza zikiñik,
garbixaliak gara gu.
Geure bijotza alat̄uta,
poz-pozik egind̄a ¡ujuju!,
jantzara, mutillak, erdu!

# TXORI UṘETXINDŌṘA UDAN

(ZUBERO-ERESIJA)



# TXORI UŔETXINDOŔA UDAN

(*Bizkayerazkua*)

Txori uŕetxindoŕa
udan da abeslari,
orduban bai-daulako
basuan janari.
Neguban ezta agiri,
¡Ez-al-dago, ba, eri!
Udan ba-da agiriko
naz ni gotasauko.

---

Txori uŕetxindoŕa
euria abots zolija,
eure marguak edeŕak,
eugan beti poza.
Bijotzez maitetan aut,
ene txori polita.
Poztuteko Euzkadi,
erdu ona beti.

---

Geure abeŕi-basuak,
geure mendi-zelayak
lagunik maitentzat auke,
udabaŕi-txorija.
Samuŕ-samuŕ abestu,
alai geure gogua.
Poztuteko Euzkadi,
erdu ona beti.

# MENDIRIK - MENDI

(GIPUZKO-ERESIJA)



# MENDIRIK-MENDI

(*Bizkayerazkua*)

Guazan mendirik-mendi,
euzkotaŕ gastiak;
guazan aldatzak gora,
mendigoxaliak;
axe osasuntsubaz
bixitza in̄daŕtzera
abeŕi gustijari
aguŕ egit̄era.

Tontoŕera elduta
abestijai ekin,
santso eta iŕintsi,
uyuyu in̄daŕtsu ein.
¡Gora Jaun-goikua ta
gora Lagi-Zaŕa!
¡Gora, gora betiko
Abeŕi laztana!

# JAGI, JAGI, EUZKOTAŔAK.

(ZUBERO - ERESIJA)



# JAGI, JAGI, EUZKOTAŔAK

(*Bizkayerazkua*)

¡Jagi, jagi, euzkotaŕak,
lasteŕ datoŕ eguna!
Soŕkaldetik agiri da
argi gozo-biguna.
Bere auŕian bilduŕtuta
igesi dua illuna.

¡Jagi, jagi, euzkotaŕak,
lasteŕ datoŕ eguna!
Soŕkaldetik agiri da
JEL-eguzki edeŕa.
Bere argijak berotuko
dausku geure bijotza.

¡Jagi, jagi, euzkotaŕak,
eta batzau gaŕezan!
Aŕtu danok izkillubak
eta auŕera goyazan.
Geure Abeŕi-areyuak
gustijak il daiguzan.

# MAŔKIŇETXEBAŔI'KO

(BIZKAI-ABESTIJA)



# MAŔKIÑETXEBAŔI'KO

(*Bizkayerazkua*)

Mańkiñetxebaŕi'ko senaŕ-emazte bik
alaba edeŕa euken Jaungua'k emonik
eta amaŕ milla dukat luŕpian jabonik
ikusten ezebela egunen argirik.

Bete euzanian neskak amazoŕtzi urtiak
zorgin bat auŕki-eban etxetik uŕian,
eta asi yakon itz-ein erazo gurarik
ia eukan ezkontzeko emonda berbarik.

Baŕez erantzun eutson bere bixaŕetan
ezebala, ez, berak igaŕi kartetan.
Alpeŕ zorgin au zan igesten ariña;
eldu yakon zankora txakuŕen agiña.

# BASATXORITXU

(BIZKAI-ABESTIJA)



# BASATXORITXU

(*Bizkayerazkua*)

Basa-txoritxu musturŕ-luziak,
ez jun Donoki'ra billa;
aingerutxurik biaŕezkero
oŕa oŕ nire mutilla.
Bere musuba eduŕa da ta
suba bijotz ta ezpanak;
berton urturik bixiko dira
nire bulaŕa ta zanak.

¡Ai, nok leukezan uŕezko oŕatza,
uŕe-miesa ta arija,
uŕez asi eta amaŕuteko
seintxu ontzako janzkija!
Laŕosatxubak bost oŕi daukoz,
klabeliñeak amabi;
gure umetxuba gura dabenak
eskatu bere amari.

# BELAŔIMOTZA, ¿ZETARA ATOŔ ONA?

(ZUBERO-ERESIJA)



## BELAŔIMOTZA ¿ZETARA ATOŔ ONA?

(*Bizkayerazkua*)

*Belaŕimotza, ¿zetara atoŕ ona?*
*atzera ua eure abeŕira.*

Ango luŕ edeŕak gogoz landu egixak,
eta jangok ondo;
ta alan i ta ni adizkide beti.

Eure abeŕijan ogasunak itxiña
¿zetara etoŕi?
¡Ai, belaŕimotz! eztaukok bururik.

Emen eztok ezer gose-biaŕa baño.
Ua, belaŕimotz,
ua emetik eu-abeŕirano.

*Belaŕimotza, ¿zetara...*

# ¡MENDIYAN BAI-DA EDEŔ

(BEŃABAŔA-ABESTIJA.)



## ¡MENDIYAN BAI-DA EDEŔ!

(*Benabaŕerazkua*)

¡Mendiyan bai-da edeŕ epheŕ txango-goŕi!
Ene maŕiak ere beŕtziak iduri;
eni hitzeman eta gibelaz itzuli.

Ene bihotza duzu zuganat erori,
eta zuria aldiz haŕiya iduri:
ene begi gaxuak nigaŕez ithuŕi.

(*Zubererazkua*)

Oreña lasteŕ dua horen aitziñian,
huriyan saŕtzen dvzv ahal dianian;
ez bere nahijaz bena bai bere behaŕez:
zv ere hala-hala zabiltza arauez.

# ¡OÑAZEZ!

(NABAŔA - ERESIJA)



# ¡OÑAZEZ!

(*Bizkayerazkua*)

Aldi baten gure ama,
Aber̃i mait̃agar̃ija,
semiok genkusan edur̃
bar̃ija baxen garbija:
Orain ostera,
itxasi yako
ar̃otzen dongakerija!
Au tamal mingotsa!
au oñaze latza!
or̃bandu dala Aber̃ija!

Aldi baten, lilli jayo
eder̃tasunez jantzija,
aldi baten, baratz bikain,
dongaentzako ertsija:
Oraintxu bar̃iz,
baltzez josit̃a,
kutsatu yako irudija...
Ez negar̃ik, ama!
zeu garbitziar̃en
emongo dogu bixija!

# OTSEÑA ZARA


Andantino
Zor - i - jo - na zeur - e la - gu - na zan
zeur - e la - gi - jen al - di - jan. Nor - nai zeur - e bur - u -
ba zi - ñan, ga - tza zer dan e - tze - ki - jan. I - tsur -
ik zeuk ai - o - tza o - ne - tsi, ba - ña, ta e - mon zeu - tson bi - jo -
tza. Or - du - tik o - na o - tse - ña zar - a ja - bi - a
do - zu Es - pa - ña. Or - du - tik o - na o - tse - ña
zar - a ja - bi - a do - zu Es - pa - ña.

# OTSEÑA ZARA

(*Bizkayerazkua*)

Zorijona
zeure laguna zan
zeure lagijen
aldijan.
Noz-nai
zeure buruba
ziñan;
gatxa zer dan
etzekijan.
Itsurik
zeuk aŕotza
onetsi, baña,
ta emon zeutson
bijotza.
Ordutik ona
otseña zara,
jabia dozu
España.

Ara zelan,
Euzkeldun eŕija,
jausi zarean
lexara.
Lotsa...
lotsarik eztau
oŕetara
dagonak
azpiratuta.
Begirik
ori ikusteko
ba-daukozu
noz-edo-noz,
Ama, itxaŕtu.
Ta oŕban ori
kendu odolaz,
aŕen, negaŕez
ez-kendu.

# ITXAŔTU, EUZKO-SEMIA

(NABAŔA-ERESIJA)



# ITXAŔTU, EUZKO-SEMIA

*(Bizkayerazkua)*

Itxaŕtu adi, euzko-semia,
ken egixak lo txaŕok.
Geure Abeŕi Ama Euzkadi
dola jakin biaŕ dok.
*Laran-la ¡gora Jaun-goikua!*
*Laran-la ¡gora Lagi-Zaŕa!.*

Uri, baseŕi, zelai, mendi ta
geure lagi edeŕak
gal-yozak aŕotz - zalekeri
amorde... ta... eŕderak. [jak
*Laran-la, ¡gora...*

Jauna'k emonik Abeŕi
ain garbi ta bikaña [edeŕ
au bazteŕturik ¿nok maŕe
amordeko zistriña? [ko yok
*Laran-la, ¡gora...*

Atoŕ, euzkotaŕ aŕotzalia,
atoŕ geure aŕtera,
Abeŕi-aldez lan-egiteko
gogoz geuikin batera.
*Laran-la, ¡gora ..*

Goŕotau egik zezenketea
birau, dantza zikiñak.
Maŕe bijotzez euzkotaŕ ki
jolas garbi bikañak. [rol,
*Laran-la, ¡gora...*

Jai gustijetan mendirik-
azkaŕ juan gadixan, [mendi
uri-zuluan geratu-barik
sagu-zaŕen antzera.
*Laran-la, ¡gora...*

Abeŕi maŕe au bixi ba-da
zoŕ yautsaguk Sabin'i,
urkamenditik kendu ta
yualako ipiñi. [onek
*Laran-la, ¡gora...*

Alpeŕik aŕotz ta aŕotza
esangoek bestera. [liak
Sabin dola-ta gaizkatuko
Euzkadi ta Euzkera. [zak
*Laran-la, ¡gora...*

Aupa, mutilak, auŕera
au jaritxi-aŕtian, [beti
Euzkadi'gaz geuk aŕtzeko
Donokiko zoruna. [gero
*Laran-la, ¡gora...*

# EGVNTO BATEZ

(ZUBERO - ABESTIJA)



# EGVNTO BATEZ

(*Zubererazkua*)

Egvnto batez nindagualarik
matenarekin leihuan,
eŕan vkhen niriozvn
hura niala goguan,
ene oinhaze mingatzaz
uŕikal haŕtv lezan.

# AṘATS-ABESTIJA

(ZUBERO-ERESIJA)



## AŔATS-ABESTIJA

(*Bizkayerazkua*)

Azkatasun-eguzkija jun yaku Euzkadi't̄ik,
bere bixiko gaitz miñak gabarekin eldurik.
Illargirik ez ortzian, ezta be ixaŕ-izpirik,
illunpetan abeŕijau illunduba danetik.

(*Gipuzkerazkua*)

Aŕamaka dabiltz oro, aŕtzak eta otsuak,
idukitzen ixututa Euzkadi'ko euzkuak.
Abestu ezin, ba, pozki euzko gaxo-gaxuak,
orlako estutasunen naigabe, min ta iᵗxubak.

Negaŕ egin negaŕ beti, jun danetik euzkiya,
ene gogo, biyotz estaŕi ta begiya.
Puŕukatu eŕai oro; leŕtu, baŕen gustiya;
nekatuta dagolako, ondatuba Abeŕiya.

---

## AGOTA

(*Zubererazkua*)

Argi-azkoŕijan jiñik ene aŕesekil̄a,
beti beha, entzvn nahiz nunbat̄ik zv-abotsa.
¿Ardijak nun vtzi tvzv? ¿zerentako eŕada
nigaŕez ikhusten deizvt zure begi edeŕa?

# GEŔTU GAGOZ

(BIZKAI - ABESTIJA.)



# GEŔTU GAGOZ

(*Bizkayerazkua*)

Euzkadi polit-edeŕa
erdi-illik eguan;
abenda gaxuagorik
eztago ludijan.
¡Gaxua!
¡Gaxua!
Euzko batek didaŕ einda
zutik jaŕi giñan;
geŕtu gagoz bere aldez
asteko lanian.

# ¡LENAGO IL!


Balek
¡Ze i-kus-ten da-be neur-e be-gi-jok? Au da-nau da-kust gol-da-
ta. Bor-e-zi, ba-so, mur-u ta mon-di, ur-i, ba-
soi-i ta da-na... Mo-trak sai-tu-ta sa-lo-ber-
i-ok ar-a bii-in-du da-be la. ¡Il na-ya-
go dol i-ku-si ba-ño A-bei-i-jai-en a-ma-ya!
mf
dim.

# ¡LENAGO IL!

*(Bizkayerazkua)*

¿Ze ikusten dabe
neure begijok?
Au danau dakust
galduta:
berezi, baso,
muru ta mendi,
uri, baseŕi
ta dana...
Motzak saŕtuta,
saloberiok
ara biŕindu
dabela.
¡Il nayago dot
ikusi baño
Abeŕijaren
amaya!

Esaidazube,
Euzkotaŕak, ba,
nun diran zuben
eŕijak.
Eztira ageŕtzen
iñun-iñun bez
zuben asaben
lagijak.
Motzak saŕtuta
zuben etxion,
dira amen jabe
nausijak.
¡Ez esan iñoz
mendi onek, ba,
dirala zuben
mendijak!

¿Noz euzkotaŕak
Jaun-goikua'ren
ixen deuna aiztu
len eben?
Orain motzak lez
lotuten dabe
loidun eŕderaz
egiten.
Ekandu onak
itxiŕa, baltzak
aŕtu ditube
gauŕ emen.
¡Goiko Jaun ona:
eŕuki zadi
aiztu zabenoi
bai, aŕen!

¡Eŕi gaxua!
¿Jayo nintzan ni
zeure il-orduban
eltzeko?
¿Zegatik, Ama,
zeure semiok
eztira itxaŕtzen
ondiño?
¿Ama, ilgo zara
motzen azpijan?
¿Ilgo zara zeu
betiko?
¡Itxaron, Ama!
¡jarijon biot
neure odol au
lenago!

# ANDRA ON DAUN GIXONA

(BIZKAI-ABESTIJA)



# ANDRA ON DAUN GIXONA

(*Bizkayerazkua*)

Neure auzo mat̄iak, Josepe ta Manu
pipa ar̃tuko neuke tabakua ba'neu;
pipaz gañera bat̄a nok emon ba'lego
garbit̄uko neukela botilla bat ardau.
Andra on daun gixona nik eztot er̃uki,
Jaun-goikua'k emonik, nik alan eduki

# UŔUNDIK

(NABAŔA-ABESTIJA)



# UŔUNDIK

(*Nabaŕerazkua*)

Uŕundik ikusten dut
ikusten mendiya;
beraren gibelian
dago nire eŕiya.
Yadanik dut aditzen
zoriyon aundiya:
yuale maīiaren
asperen eztiya.

(*Bizkayerazkua*)

Gastetxu nintzanian
eŕiīik urtenda
negaŕez atzeŕira
jun nintzan lan-billa.
Oin pozik abeŕira
nentoŕan atzera...
¡Gaxuoi! Oindiño az
aŕotzen jopuba.

# ¡AZKATU BEDI!

(BIZKAI - ERESIJA)



# ¡AZKATU BEDI!

(*Bizkayerazkua*)

Emen lagun-ar̃tian,
azkatasun osoz,
abestu biar̃ dogu
Aber̃ija gogoz.
Sar̃i areyo-ar̃tian
ixil biar̃:
¡Nasaitu bijotzak!
¡Entzun beiz abotsak!
Goraldu orain ama,
Aber̃i laztana,
¡Azkatu bedi!
Jarei ta azke beti
ikustiar̃en, ba,
odol au ixuri.
¡Bar̃iz!
Aber̃ija azkatziar̃en,
¡egiz!
bixitzea emon pozik!

# EUZKEREAREN ERIYOTZA

(BENABAR̄A-ERESIJA)



# EUZKEREAREN ERIYOTZA

(*Nabaŕerazkua*)

Nik maŕe nuban kutuna,
nere atsegin-zoruna,
ibilli bai ta, bai egon,
ez dut aŕkitzen iñiñon.
Billaka beti bai-nabil,
baña da agiyan nunbait il.

Ibai-ertzetan galdetzen
dut iya ote-dan emen.
Batzutan dagit oyuba,
bestetan, beŕiz, uluba.
"Maŕia, diyot, ¿nun abil?",
baña da noski nunbait il.

---

## LIL̄I EDEŔ BAT

(*Benabaŕerazkua*)

Lil̄i edeŕ bat bai- dut nik
aspaldi begiztaturik;
bañan ez nainte ausaŕtzen
haren eskura haŕtutzen,
ba'naki zer den galtzia
jun nindaŕeke aldera.

Lil̄i edeŕa, so-idazu,
maŕe nauzunez eŕazu.
Zure begiyak bihotza
baŕnarik deraut zauril̄tu;
bai-dizu zauri huntarik
ene utzitzeko il-il̄ik.

# ¡ITUNA!

(BIZKAI-ERESIJA)



# ¡ITUNA...!

(*Bizkayerazkua*)

—¡Oi, Edurnetxu mařia,
len bijotz-alaya!
¿Zer donala-ta eldu yan
oin gogora iťuna?
Goratu bijotza,
auřpegija alaťu
pozik ibilli ta
ikusiko don
¡bixitza donan on-edeřa!

¡Goiko Jauna'ren Lagija
aiztu-ezetsiťa!
¡Geure Abeři gaxua
ildeko zorijan!
Txorijak ixildu,
eguzkija illundu,
lorak zimeldu,
¡au zoritxařa!
¡Betiko yuadan alaya!

# ALOSTOŔIA

(GIPUZKO-ABESTIJA)



# ALOSTOŘIA

(*Gipuzkerazkua*)

Alostořia, bai, Alostořia
Alostoře'ko zurubi luzia.
Alostořia'n nenguanian
gorubetan, bela beltza
kua, kua, kua, kua leyoetan.

(*Bizkayerazkua*)

Mendijen ganetik agiri dira
bela ařotz zit̄alak geuri begira.
Gosez geugara bein etořit̄a
¡geu gaxuok! zati-biřind̄uko
gabez euzkotařok.

Euzkadi gaxua, ¿nun jausi zara?
il-zorijan dozu zeure buruba.
Motza sařtuta, azkatasun-barik,
jopu einda... Jagi, ařen, jagi
lasteř edo il, Ama.

# TXERU

(BIZKAI-ABESTIJA)



# TXERU

*(Bizkayerazkua)*

Txeru kartzelan dago,
damia kanpuan;
Txeru'k gura leukela
ba'leuko albuan.
¡Txeru!
Artakamara motxoliñua,
domingillua lairai-lon.

---

# ¡AMA!

*(Bizkayerazkua)*

Ama, zeu-barik lafi
nago neu benetan;
erdu ta poztu naxu
zeure besoetan.
¡Ama!
Triskan egixu neskatotxuba,
mutikotxuba, lairai-lon.

# LEN ETA ORAIN

(NABAŘA-ERESIJA)

Andantino



# LEN ETA ORAIN

*(Bizkayerazkua)*

Antziñako
asaba zaŕak
izkilluz ebezan Abeŕitik
jaurti eŕbestaŕak.
Orain baŕiz dirudun danari
zabaltzen yakozak zoliki
beso euzkotaŕak!

Aldi baten
euzko-semiak
txiruak zuazan ta landeŕak,
baña baita azkiak.
Orain ostera aŕotzik baltzenei
saldu yaroatsoeguzak
odol ta legiak!

---

## GOXIAN ON

*(Nabaŕerazkua)*

Goxian on,
aŕatsian on,
matsaren zumua beti duk on,
eta bet iduk on.
Etxera abiya ta juan ezin
erori eta bertan etzin,
etan bertan ezin.
Beŕiz abiya ta juan ezin
erori eta bertan etzin,
eta bertan etzin,

*Grijelmo'ren Alargun eta Semien Irarkolean*

*Arbolantxa, 1*

*ABANDO'N*